

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

HIRIGINTZA ETA INGURUMEN SAILA

130/2019 Foru Agindua, maiatzaren 24koa, hasierako onespena ematen diona Arabako Lurralde Historikoko Bizikleta Bideen eta Ibilbide Berdeen Lurralde Plan Sektorialari eta Ingurumen Azterketa Estrategikoa jendaurrean jartzeko izapidea egiteari

AURREKARIAK

Lehenengoa. Diputatuen Kontseiluaren irailaren 23ko 475/2014 Erabakiaren bidez, hasiera eman zitzaion Arabako lurralde historikoko Bizikleta Bideen eta Ibilbide Berdeen Lurralde Plan Sektoriala idazteari.

2015eko abenduan, Bizikleta Bideen eta Ibilbide Berdeen Lurralde Plan Sektorialaren aurrerapena idatzi zen, eta Ingurumen eta Hirigintza Saileko eta Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko teknikariek baliozkotu egin zuten. Bi erakundeek eskaera aurkeztu zuten kasuan kasuko ingurumen ebaluazio estrategikoa hasteko.

Bizikleta Bideen eta Ibilbide Berdeen Lurralde Plan Sektorialaren aurrerapenaren proposamenak 2016ko apirilaren 11ko Ibilbide Berdeen Kontseiluan azaldu ziren, bai eta 2016ko maiatzaren 9an Arabako Foru Aldundian egindako Arabako Bizikletaren Kontseiluan ere.

2016ko apirilean eta maiatzean 7 bilkura informatibo egin ziren, bat kuadrillako, Arabako toki erakundeei zuzenduta: kuadrillei, udalei eta administrazio batzarrei. Bizikleta Bideen eta Ibilbide Berdeen Lurralde Plan Sektorialaren aurrerapenaren edukia eta irismena azaltzea zuten xede. Era berean, 2016ko ekainaren 21ean, beste bilkura bat egin zen bereziki Arabako toki erakundeetako teknikari aholkulariei zuzenduta.

Bigarrena. Lurralde Antolamenduari buruzko 4/90 Legearen 13.4 artikulua betez, Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatuaren ekainaren 2ko 137/2016 Foru Aginduaren bidez, erabaki zen Bizikleta Bideen eta Ibilbide Berdeen Lurralde Plan Sektorialaren aurrerapena bidaltzea lurraldeko administrazio publiko interesdunei, eta bi hilabeteko epea ezartzea oharrak, iradokizunak, alternatibak eta proposamenak aurkez zitazten. Foru agindu hori 2016ko ekainaren 10eko ALHAOn (66 zk.) argitaratu zen, eta aipatutako epean hainbat ohar, iradokizun, alternatiba eta proposamen aurkeztu ziren.

Hirugarrena. Ingurumen izapideei dagokienez, Arabako Foru Aldundiaren Ingurumen Ebaluazioaren Atalak Bizikleta Bideen eta Ibilbide Berdeen Lurralde Plan Sektorialaren Ingurumen Azterketa Estrategikoaren irismen agiria aurkeztu zuen 2016ko uztailaren 8an.

Laugarrena. Ingurumen izapideetan aurkeztutako kontsultei emandako erantzunei eta Bizikleta Bideen eta Ibilbide Berdeen Lurralde Plan Sektorialaren aurrerapenari aurkeztutako ohar, iradokizun, alternatiba eta proposamenei dagokienez, Arabako Foru Aldundiaren Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak eta Errepide Zerbitzuak, 2018ko apirilaren 9an, eta Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzuak, 2018ko apirilaren 13an, txosten bana egin zuten jasotako proposamenak zergatik sartu, aldatu edo, hala badagokio, ukatu diren adierazteko.

Bosgarrena. 2018ko abenduan aginduzko txostenak eskatu zitzaizkien arloko eskumenak dituzten administrazio publikoei; besteak beste, uren, telekomunikazioen, defentsaren, trenbideen, zarataren, zortasun aeronautikoen, errepideen, kultura ondarearen eta garraioaren agintaritzaren arloko Euskadiko eskumenak dituzten erakundeei.

OINARRIAK

Lehenengoa. Bizikleta Bideen eta Ibilbide Berdeen Lurralde Plan Sektorialaren hasierako onespeneren agiriak albertatibak eta jarduketak garatzen ditu, hauek balioetsi eta kontuan hartu ondoren: parte hartze publikoaren prozesuetan jasotako iradokizunak eta oharrak, zein administrazio publikoek (besteak beste, ingurumen organoak) emandako txostenak.

Horrela, agiriak elkarren osagarri diren bi sare zehazten ditu, eta horiek lurralde guztia egituratzen duen mugikortasun jasangarriko ibilbide egitura osatzen dute, ondare natural, historiko-arkitektoniko eta kulturalari balioa emateaz eta haren turismo zabalkundea egiteaz gain. Bi sareak hauexek dira:

– Bizikleta bideen sarea, 11 ibilbidez osatua. Ibilbide horietatik bat egun badago, eta gainerako 10ak planifikatuta daude.

– Bide berdeen sarea; guztira, 48 ibilbide izatea aurreikusita dago. Horietatik 10, badaude egun, denak katalogaturik, eta beste 15 ere badaude egun, baina katalogazio fasean, eta gainerako 23ak planifikatuta daude.

Agiri teknikoak hauexek ditu: memoria, araudia, jarduketa programa, agiri grafikoak, parte hartze publikoaren agiria, ingurumen azterketa estrategikoa eta planeamenduaren eraginaren eranskin bat.

Bigarrena. Bizikleta Bideen eta Ibilbide Berdeen Lurralde Plan Sektorialaren agiriak aurkeztu ondoren, ingurumen azterketa estrategikoa barne, Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzuak, 2019ko maiatzaren 7an, generoaren arabera eraginari buruzko txostena egin zuen Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak 18. artikulutik 22.era bitartean xedatutakoa betetzeko, zeina jendaurrean jarriko baita, hasierako onspena eman zaion agiriarekin batera.

Hirugarrena. Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde antolamenduaren maiatzaren 31ko 4/1990 Legean, Ingurumen Ebaluazioaren abenduaren 9ko 21/2013 Legean, eta planen eta programen ingurumen ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen 211/2012 Dekretuan, urriaren 16koan, ezarritakoaren arabera, Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzuak, 2019ko maiatzaren 13an, txostena egin zuen Bizikleta Bideen eta Ibilbide Berdeen Lurralde Plan Sektoriala hasieran onestearen alde. Era berean, Ingurumen Azterketa Estrategikoa jendaurrean jartzeko izapideak hastea onetsi zuen.

Laugarrena. Ikusirik Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 40. artikulua, eta Ingurumen eta Hirigintza sailaren egitura organiko eta funtzionala onesten duen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 17/2016 Foru Dekretuaren 17. artikulua.

Horregatik guztiagatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Hasierako onspena ematea Arabako Lurralde Historikoko bizikleta bideen eta ibilbide berdeen Lurralde Plan Sektorialari.

Bigarrena. Agiria jendaurrean jartzea bi hilabetez, foru agindu hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Era berean, foru agindu hau argitara emango da BOEn, EHAAAn eta, gutxienez, Arabako Lurralde Historikoan zabalkunderik handienetakoa duten bi egunkaritan.

Hirugarrena. Entzunaldia irekitzea lurraldeko administrazio publiko interesdun guztientzat, jendaurreko informazio aldiarekin batera, bi hilabete epean egoki irizitako oharrak edo iradokizunak egin ditzaten.

Laugarrena. Agiriaren Ingurumen Azterketa Estrategikoa jendaurrean jartzea eta eraginpeko administrazio publikoek eta pertsona interesdunek kontsultatzeko moduan jartzea, alde aurretik kontsultak egin bazaizkie, iragarki hau ALHAOn argitaratu ondorengo egunetik hasita 45 egun balioduneko epean.

Aipatutako epeetan, lurralde plan sektorialaren agiria eta ingurumen azterketa estrategikoa jendaurrean jarriko dira aztertu ahal izan daitezzen, www.pts-vciv.com web orrian (www.araba.eus helbidetik sar daiteke) eta Arabako Foru Aldundiaren egoitzan:

Arabako Foru Aldundia.

Hirigintza eta Ingurumen Saila.

Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzua.

Probintzia plaza, 5, 1. solairua.

01001 Gasteiz.

Foru agindu honen aurka ezin izango da errekurtsorik jarri, Arabako Lurralde Historikoko Bizikleta Bideen eta Ibilbide Berdeen Lurralde Plan Sektoriala onesteko prozeduraren barruko izapide bat baita.

Gasteiz, 2019ko maiatzaren 24a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO